

## Deialdiaren xedea

Beren tituluari lotutako lanetan esperientzia gutxi edo batere esperientziarik ez duten gazte langabeak EUSKAL ENPRESEK praktiketan edo/eta kontratu mugagabe batekin kontratatzeko bideratutako laguntzak arautzea.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bulegoetan edo zentro laguntzaileetan aurkeztuko dituzte enpresek hautatu beharreko gazteen profila zehazten duen lan-eskaintza eskabidea. Eskaintza bat kudeatu ondoren hautagai gisa bideratu diren pertsonen egindako kontratuak baino ez dira diruz lagunduko.

Interesdunek Lanbiden- Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda egon beharko dute, datuak gaurkotuta dituztela.

- a) 16 urtetik gorakoak eta 30 urtetik beherakoak izatea.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoan bizitzea.
- c) Langabeak izatea eta Lanbiden enplegu-eskatzailer gisa izena emanda egotea.
- d) Honako titulazio hauetakoren bat izatea:
  - ✚ Lizenziatura, Ingeniaritza, Arkitektura edo Masterra-Boloniako Plana
  - ✚ Unibertsitateko diplomatura, Ingeniaritza tekniko, Arkitektura tekniko edo Unibertsitateko Gradua- Boloniako Plana
  - ✚ Araututako lanbide heziketako edo berariazko lanbide heziketako goi-edo erdi-mailako teknikaria. Honako bi tituluak ere aurrekoen baliokideak dira: teknikari laguntzailea (LH1) eta teknikari espezialista (LH2).
  - ✚ Onarrizko lanbide heziketa
  - ✚ Ofizialki, aurrekoen baliokidetzat hartutako beste titulazio batzuk.
  - ✚ Profesionaltasun-ziurtagiria.
- e) Tituluarekin lotutako enpleguetan 6 hilabeteko esperientzia izatea gehienez ere.

**Gazte Bermea Sistemaren** datu-basean identifikatuta daudenei **lehentasuna** emango zaie hautaketa-prozesuan.

***Aurreko deialdietan praktikaldiko kontraturen bat lortu dutenek, programa honetan lan-kontratu MUGAGABERAKO BAINO ezin izango dute parte hartu.***